

Arkupetik trinketera 1919 - 2019



Sarrera

Udazkeneko hilabeteetan, ilargia ilgora denean, Irurako mendietan jasotako hurritzaren egurra baliatuz, hasten dira liburu honetako protagonista sortzeko lehen pausoak. Ondoren etorriko da, bere hezurduraren neurrira, sokarekin egindako jantzia edo sarea. Formari dagokionez, ondo erreparatuz gero, armiarma sare baten itxura du, duela 100 urte Irurako herria erakarri eta harrapatu izanaren bihozkada baten seinalea balitz bezala.

Hala ere, Xarea bere horretan, beste edozein objektu bizigabe bat bezalakoa litzateke. Pertsonen eskuetan hartzen duen etengabeko mugimendu horrek ematen dio bizitza, mende bat iraun ahal izateko baliatu duen arnasa.

Herri nortasuna, historia bezala, uneoro definitzen eta idazten doan liburua da. Mugimendua du, bilakaera bat ere bai, gertakizun bakoitzarekin elikatzen doana.

1919. urtean hasi ondoren, xarea gure ondare eta paisaia kulturalaren parte izatera iritsi da. Hainbat herritarrek euren pausoei utzitako arrastoek osatzen duten ondarea, nondik gatozen jakiten laguntzen diguna.

Liburu honen orrietan agertzen diren kontakizunak irakurritz goza dezazuela eta, bide batez, idazteko berriak sor daitezela desiratuz, agur bero bat.

Gorka Murua Macuso
Irurako alkatea



Argitaratzailea:

Irurako Udala



Testuak: Jon Leunda

Diseinua: Belako Publizitatea
eta Komunikazioa

100 urteko historia, laburrean

Iurako umeek 1919an izan zuten lehenengo harremana xare-jokoarekin. Joxe Jaurregi Garmendia zen orduan Iruran apaiz lanetan zebilena eta bere bidez sartu zen kirol hau herrian. Aramakoa zen bera eta Argentinan bizi zuen iloba baten bidez ezagutu zuen xarea. Hark tresnak egiten zituen, eta bera hasi zen irurarrei joko berri hau erakusten.

1952. urtean hartu zuten parte lehenengoz irurar batzuek Munduko Xare Txapelketa batean, Donostian izan zen. Bertan aritu ziren Gregorio Amezttoi, Joxe Gabarain eta Martin Agirrezabalaga, beraiek izan ziren nazioarteko bidea zabaldu zuten pilotariak. Brontzezko domina lortu zuten, eta hura izan zen irurarrek lortutako aurreneko domina, gerora gehiago ere etorri baitziren.

Elizako arkupeetan jolasten zen Iruran xarez, 1956. urtean galdu zen arte. Xareak egiten zituen jendea uzten joan zen, eta ondorioz kirol hau desagertzen hasi zen, eta urte batzuetan horrelaxe egon zen, 15 urte inguruan ez baitzuen inork jokatu.

1970ean berriro iritsi zen xarea Irurara. Enrique Abril ospetsuak zirikatu omen zituen irurar gazteak, eta ondotik Joxe Olano, Eugenio Arrieta eta Julian Larrinaga Argentinara joan ziren xarez jokatzeko.



ikastera, Amerika alde horretan hilabete osoa pasatuz. Arsuaga, berriz, Ameztotirekin xareak egiten hasi zen, berarekin ikasiz, eta horrela berriro ere xarea Iruran berreskuratzen.

Bide horretan Avelino izeneko irakasleak ere izan zuen zer eginga, jolas denboran denak xarean jokatzen jartzen omen zituen, eta ondorioz irurar gehienak jokatzen zuten garai hartan xarean eta baita bola-

da hartan modan zeuden Arrietak, Larrinagak, Olanok, Uzkudunek eta Mercaderrek ere, haiek ere bul-tzada handia eman baitzien orduan xareari.

1987an Ametsa trinketea eraiki zuten eta urte berean eskualdeko trinketeko pilota eskola sortu zuten. Ordurako gazte batzuk hasita zeuden euren burua agertzen, eta hortik aurrera etorriko ziren unerik onenak. Lehengoak, puntan zebiltzanak, oraindik sasoian zeuden, eta atzetik pilotari bikainak heldu ziren. 90eko hamarkadan izan zuten indarrik handiena xareak Iruran, maila handiko jokalaria asko baitzeuden herrian eta nazioarteko txapelketa ugari irabazi zituzten. Tartean Munduko Txapelketak ere iritsi ziren baita maila nagusian ere, irurarrez osatutako taldeak

lortu baitzuen Mexikon, 1998. urtean. Lopetegi eta Larrarte izan zen bikote titularra, eta ordezk

aritu ziren Iturbe eta Molina. Bi urte geroago, Lopetegik eta Larrartek Munduko Kopa ere irabazi zuten Baionan.

2000ko hamarkadan gainbehera etorri zen. Gailurrean zeuden gehienak uzten joan ziren, eta aurreko urteetan herrian haur gutxi jaio zirenez, gazte gutxi zeuden eta gutxiago ziren jokatzen zutenak.

2010eko hamarkadan herria handitu zenez, eskola indartzeko aukera aprobetxatu zuten Ametsa Elkartekoek; baita lortu ere, egun 70 ikasletik gora baitaude herrian, eta horietatik hogeitak dira.

1990ko hamarkadan izan zuen indarrik handiena xareak Iruran, maila handiko jokalariekin

2019ko irailaren 28a ere betirako gogoan geratuko den zerbait izango da. Lehen aldiz xarean nesken arteko partidak jokatu baitziren eta Iruran izan zen, Ametsa trinketean. Hiru bikote lehiatu ziren torneo bat jokatzen, eta aritu ziren pilotari guztiak ziren Irurakoak.

Guzti hori kontuan hartuta, eta ikusirik bai nesketan eta baita mutiletan ere behetik jendea badatorrela, maila bikainarekin, gainera, gauzak okertzen ez badira, Irurak berriro ere izango ditu goi mailako pilotariak, itxaropenez bizitzeko unea baita hau.



Aurreneko Mundialean iritsi zen lehenengo domina

1952. urtean jokatu zen Pilotako aurreneko Munduko Txapelketa eta irurarrek orduantxe lortu zuten aurreneko domina, brontzezkoa izan zen. Gregorio Ameztói, Joxe Gabarain eta Martin Agirrezabalaga izan omen ziren Donostian aritu zirenak, Olano anaiak, berriz, ordezk izan omen ziren.

Lehen partida Gabarainek eta Ameztóik jokatu omen zuten Argentinaren aurka eta galdu. Bigarrena, Ameztóik eta Agirrezabalagak jokatu omen zuten Uruguairen aurka eta hura ere galdu. Hirugarrena zen erabakiorra, hura irabazita, brontzezko domina lortzen baitzuten. Aurrean beste bikote euskal hiritar bat izan zuten, baina haiek Frantzia ordezkatzuz, eta haiei irabazi egin zieten Ameztóik eta Gabarainek, brontzezko domina lortuz.

Orduko uneak gogoan ditu oraindik Arsuaga xaregileak. «Orduan ez genuen telebistarik eta irratiz ez zuten ezer esaten. Jende mordo bat joaten zen partidak ikustera Iruratik, eta herri osoa haien zain egoten ginen emaitzak jakiteko. Brontzea lortu zutenean, Share



Elkartean egin zieten ongi etorría», esaten du Arsuagak.

Ordurako hirurak ere utzi samartuta omen zuten xarea, baina Munduko Txapelketa zela-eta berriro hartu omen zuten serio. «Gabarainek garai hartan bazuen kotxea, eta inguruan trinketerik ez, eta Elizondora joaten ziren entrenatzera Mundialak prestatzeko», ekartzen du gogora Arsuagak.

Handik lau urtera Iruñean izan omen ziren Mundialak, baina ez zen xarean jokatzen irurarrik izan, dena dela, Ameztóik berriro ere jokatu omen zituen Mundialak, baina oraingoan palaz. Izan ere Ameztói kirolari aparta izan zen. Aurretik futbolari profesionala izana zen, Atletico de Madriden eta Zaragozan jokatutakoa, eta baita Espainiako selekzioarekin ere.



Xarea bultzatzeko asmoarekin hasi zen Jexuxmari Arsuaga xareak egiten

1971. urte inguruan hasi omen zen Jexuxmari Arsuaga xareak egiten, kirol hau herrian galduta zegoela, eta berreskuratzeko asmoarekin. «Donostian jokatu zen Munduko Txapelketa eta gurerik ez zen inor, baziren urte batzuk ez zela jokatzeko xarera Iruran. Horrela, talde bat hasi ginen hau bultzatzen, batzuk jokatzeko hasi ziren, eta ni xareak egiten, ez bainintzen jokatzeko ona», esaten du Arsuagak.

«Horrela lehen aritutako batena joan nintzen, Joxe Ameztorengana. 90 urte inguru zituen, eta lanetik irtendakoan beregana joaten nintzen xareak egiten ikastera. Horrela hasi nintzen», gogoratzen du. «Herriko beste batzuk berriz, Argentinara joan ziren xarean jokatzeko ikastera, eta nik haietaz xareak egiten nituen», esaten du.

Berak garbi dauka aurreko urte horietan zergatik ez zen xarerik izan Iruran. «Hemen ikaragarriko afizioa zegoen, baina xareak egiten zituztenak zahartu eta uzten joan ziren, eta horren ondorioz jokatzeko utzi zen. Orain bezala izan balitz, ez zen amaituko, baina orduan Ipar Euskal Herrira joatea oso nekeza zen», dio. Izan ere bere ustez, bidea errazagoa izan balitz, handik xareak ekartzeko modua izango zelako. «Gerla ondorengo urte haietan Ipar Euskal Herrira joatea ere ezin zen pentsatu, ez zegoen hangoekin ia traturik. Gaur egun bezala izan balitz, pentsatzen dut xareak handik ekarriko zirela, eta hemen jarraituko zela jokatzeko, afizioa ere handia zelako», uste du.

Dena dela, berriro ere azkar berpiztu omen zen xarea. «Sekulako interesa zegoen, eta xarea berpizte horrek herrian indarra hartu zuen. Gogoan daukat Galarreta pilotalekua egin berria zela, eta han jaialdi bat egin zela dirua ateratzeko, gure pilotariak Argentinara joan ahal izateko. Lehen pilotariak Argentinara joan ostean, eta handik itzulitakoan, herrian txapelketa bat antolatu zen, baina jendeak izena ematea kostatu egin zen. Argentinan ibilitakoak onak izango zirela eta zalantzak izan ziren. Hura izan zen nik jokatu dudana txapelketa bakarra», ekartzen du gogora.

Bi egur mota erabiltzen zituela esan zuen. «Gaztainondoa eta hurritza erabiltzen nituen, baina orain hurritza bakarrik erabiltzen dut, gaztainondoak gaitza baitauka, eta harekin eginez gero, segituan izorratzen da xarea», dio.

Aitak emandako gomendioa ere ez duela sekulan ahaztu dio. «Behin aitak galdetu zidan ea noiz moztu nituen egurrak, eta ahal nuenean esan nion. Berak garbi utzi zidan bakoitza zegokion unean ez banuen moztu, gero emaitzak ez zirela onak izango, eta arrazoi zuen. Ordutik gomendioari kasu egiten diot», esaten du.

Xareak ez direla gehiegi aldatu esaten du. «Beti joaten da hobetzen, gauza berriak probatu eta balio badute aurrera, baina ez dira gehiegi aldatu», esaten du. Hori bai, garai bateko Mauser ize nez ezagutzen ziren bi badauzka etxean. «Nire garairako desagertuta zeuden, 50. hamarkada inguruan egiten ziren, kirten luzearekin. Nik uste dut haiek frontoian jokatzeko pentsatutakoak izango

*Herriko batzuk
Argentinara joan
ziren ikastera, eta nik
xareak egiten nituen*

zirela. Hemendik lehen aldiz Munduko Txapelketara joan zirenean ikusi zuten haiekin nekeza zela jokatzeko. Villabonako taberna batean aurkitu nituen zintzilik, eta trukean ekarri nituen», esaten du.

Gaixotasun bat medio, orain ezin du nahi bezala lanik egin, eta bere semea ari omen da xareak egiten. «Berak ikasi zuen, eta berak egiten ditu orain, nahiz eta ahal dudana neurrian saiatzen naizen berari laguntzen». Bere xareak Euskal Herriko pilotariak erabiltzeaz gain, Kubara edo Mexikora ere bidali izan ditu.

Xareko une onak eta ilunak eza gutu ditu, baina orain etorkizuna argi ikusten du. «Urte oso onak eza gutu ditut. Ni umea nintzenean, sekulakoa izaten zen. Gainera Zizurkilen ere jokatzeko xarez, Irurako apaiz batek jarri zituen han jokatzeko. Gero, bi herrien arteko desafioak ere izaten ziren, eta festa bat zen hura. Ondoren geldialdia etorri zen, eta berriro loraldia. Horrela izan da, baina une honetan xarea Iruran ongi ikusten dut, eta etorkizuna ere ona dela deritzot», esaten du Arsuagak.



Argentinara *bidaiatu zuten* lehen pilotariak

Eugenio Arrieta, Joxe Olano eta Julian Larrinaga dira askorentzat Argentinara bidaiatu zuten lehen pilotariak. 1971. urtean izan zen. Egun, oraindik Olano ez beste biak bizirik dira eta oroitzapenean ondo gordeta dituzte orduko bizipenak.

«Txikitan zer bait ibiliak izango ginen, baina ordurako xarea bukatuta zegoen hemen. 1952ko Mundialekin oroitzen ginen, nahiz eta txikiak izan. Enrique Abril etortzen zen Share Elkartera eta hark berri zuen



gehienbat», oroitzen du Eugenio Arrietak.

«1971ko azaroan joan ginen Argentinara, han hilabete bat pasa genuen. Luis Mujikak lagundu zigun, garai hartan Galarretako enpresan bazituen bere kontuak, eta jaialdi bat antolatu zen guk hara bidai egingeko. Argentinan, beraiek mantendu gintuzten», esaten du Arrietak.

«Oso hilabete ona izan zen, Labat zen gure irakaslea, hasieran ikasten jardun genuen, eta gero jokatzere aritu ginen. Pena merezi izan zuen. Garai hartan ez ginen umeak, 30 urte ingurukoak, baina, Argentinara joateko aukera ez zen egunero agertzen, eta han joan ginen», dio Eugeniok.

Gero etorri zen Munduko Txapelketaren aukera, nahiz eta ez zuten dominarik lortu. «Pena izugarria 1978koarekin daukat. Aurrenekoa Uruguain jokatu genuen, 1974an. Garai hartan Argentina zen nagusi, eta Espainia bezalaxe euskaldun ez osatutako Frantzia zuten aurkari nagusia. Gu Uruguarekin lehiatzen ginen, baina lehenengoan ez genuen dominarik lortu», dio Arrietak.

1978koa Baionan, Euskal Herrian jokatu zen, eta hango oroitzapenak, oraindik ere tristezia sortzen dio. «Eskura izan genuen brontzezko domina, irabazten joan ginen partida osoan zehar Uruguairen aurka, oso gertu ikusten genuen hirugarren postu hori, baina azkenean, galdu egin genuen. Izugarritzko pena izan zen», dio Arrietak.

«Normalean Olano eta ni izaten ginen bikote bat, eta Larrinagak gazteren bat izaten zuen lagun. Txapelketa asko jokatu genituen. Gure atzetik etorri ziren Mercader eta Uzkudun, bikote ezaguna bihurtu zena», ekartzen du gogora Arrietak.

Arkupetan jokatzere zuten hasiera hartan, eta ia amaierara arte horrela aritu ziren Iruran. «Bere xarma bazuen arkupeak, Ipar Euskal Herritik etortzen zirenek, nekez irabazten ziguten. Hala ere, gero trinketea egin zenean, sekulako urratsa eman zen».

Eta trinketean amaitu zuten hiruek euren jarduna. «Ez ginen gazterik hasi, eta ezin utzi gazterik, trinketea probatu genuen,

Labat zen gure irakaslea Argentinan, bertan ikasten eta jokatzere aritu ginen

plazer bat zen han jokatzere, horrenbeste urte arkupetan aritu ostean. Ez guretzat bakarrik, baita atzetik jadanik zeudenentzat eta zetozenentzat ere. Guk asko mugitu behar izaten genuen entrenatu ahal izateko, baina trinketea egin zutenetik ez zuten horren beharrik», esaten du.

Jokalariez gain, Arsuagak xareak egiten egin zuen lana ere goraipatu nahi izan zuen. «Xareak egiten geratzen ziren bakarrenetakoak oso adinekoak ziren, eta Arsuagak sekulako lana egin zuen, bestela oso zaila izango zen aurrera egingea. Guk aurrea erabili genituenak Ameztok egindakoak ziren. Mauserrak deitzen zitzaizkien, eta egia esan pilotari oraingoekin baino indar gehiago ematen zitzaizkien», esaten du Arrietak.



Mikel Uzkudun: «Ni hasi nintzenean xarea kirol ezezaguna zen niretzat»

Mikel Uzkudun oso garrantzitsua izan da xarearentzat. Goi mailako jokalaria, eta Irurako eskolako arduradun urte askoan. Hasieratik egon zen eskolan, eta urte batzuk aldenduta egon ostean, berriro ere eskolako arduraduna da. Nazioarteko torneo eta Mundialak jokatutakoa da, baita dominak lortutakoa ere.

-Noiz hasi zinen xarean jokatzan?

-Ni mutikoa nintzela ez zen xarerik Iruran, ordurako desagertuta zegoen, eta ia ez zen horri buruz hitzik egiten. Bazen elkarte bat Share izenarekin, baina gehiago ez. Ni eskuz hasi nintzen, eta horrela

aritu nintzen. Gogoan daukat infantila nintzela Herriarteko Txapelketa jokatu genuela. Iruran berriro xarea agertu zenean, ni ere hasi nintzen, eta Argentinara egindako bigarren bidaian ni re joan nintzen. **-Nolakoa izan zen aldaketa?** **-Azkar moldatu nintzen eskutik**

xarerako trantsizio horretan, ez zitzaidan batere kostatu. Gero emaitzak ere onak izaten hasi ziren, eta hortik aurrera eskua utzi eta xarez bakarrik aritu izan naiz.

-Lau Mundial jokatu dituzu, baina lesioa izan ez bazenu, bosgarrena ere bai, ezta?

-Bai, lau jokatu nituen, baina 78an min hartuta nengoen belaunean eta ezin izan nuen jokatu. 74an izan nintzen aurreneko aldiz, eta laugarren postua lortu genuen Uruguain. 82an Mexikon brontzezkoa, baita 86an Gasteizen ere, eta 90ean zilarrezkoa Kuban.

-Horrez gain, beste hainbat garaipen ere lortu dituzu, ezta?

-Bai, Euskadiko txapela zazpi alditan irabazi dut, Gipuzkoakoa beste bostetan, Espainiakoa lautan, GRA-VNI behin, eta Irurako Txapelketa, berriz, sei aldiz.

-Olinpiadak jokatzetik ere ez al zinen oso gertu izan?

-Bai, horrela da, ikaragarritzko ilusioa geneukan Olinpiada haiekin. Bartzelonakoetan izango ginela uste genuen, eta Olinpiada batzuetan izatea uste dut kirolari guztien ametsa dela. 91ean Preolimpikoa jokatu nuen, eta gogor ari ginen entrenatzen Olinpiadei begira. Baina azkenean xarea kanpoan geratu zen. Lau selekzio bakarrik geunden, eta antolatzaileek gutxienez sei eskatzen zituzten eta jokatu ezinik geratu ginen. Pena bat izan zen, ikuskizunaren aldetik, antolatzaileak erakartzen zituelako, baina lau bakarrik ginen.

-Hor erabaki zenuen zure erritmoa jaistea?

-Horrela da. Urte asko eman nituen goi mailan, eta askotan etxekoei eta familiari ordu asko kenduta. Erritmoa jaisteko garaia zela erabaki nuen, eta beste gauza batzuetan murgiltzea. Hemengo lehiaketetan jarraitu nuen, baina handi horiek utzi egin nituen.

-Noiz utzi zenion xarean jokatzeari?

-Jokatzeari 1999an. Orduan omenaldia egin zidaten, eta nahikoa zela erabaki nuen. 70. hamarkadaren hasieran hasi eta 2000. urtearen aurrera uzten nuen. Garaia zen uzteko.

-Eskolako ardurak ere hartu zenituen?

-Bai, hastapenetik. Behar zen zerbait, eta gainera min hartuta nintzela izan zen. Lan handia egin genuen, eta uste dut eskolatik jende on asko atera dela.



-Orain berriro itzuli zara. Zergatik?

-Xarearen beherakada ikusten nuen, ez hemen bakarrik, baita gainerako lekuetan ere. Azkeneko Munduko Txapelketan ez da izan modalitate hau. Herrian ere batek baino gehiagok esan zidan hau hartzeko, eta orain denbora badudanez pausoa eman dut. Orain nahiko egoera onean gaudela uste dut, eta uzten ez badute, hemendik urte gutxi batzuetara maila guztietan izango da xarea Iruran.

-Bost kirol ere probatu duzu. Nolakoa da?

-Gogorra. Paleta goma, larrua, pala motza, eskua eta xarea ziren. Mezkitzen jokatzen zen. 20 tantoko partidak, bat bestearen atzetik. Polita zen jokatzeko, ikusteko, baina aldi berean gogorra. Maila handiko pilotariak jokatu izan dute, eta niretzat ohore bat izan da han aritzea.

-Askok aldatu xarea azkeneko urte hauetan?

-Iruran aldaketarik handiena trinketea egin zenean eman zen. Arkupetatik trinketera egindako jauzia garrantzitsua izan zen. Jokoa bera esango nuke oso tanke-rakoa dela. Agian pilotak zerbait aldatuko ziren, baina ez dut aldaketa handirik somatzen.

Inax Iturbe: «Egun guztia pasatzen genuen arkupean xarean jokatzeko»

Inax Iturbe da xareak Iruran eman duen beste handi bat. Bost Munduko Txapelketa jokatu ditu, horietako bi irabazi, 22 urtez azpiko bat, eta helduen mailako beste bat, beste hiru domina ere lortu ditu, bi zilarrezko eta brontzezko bat. Gipuzkoako, Espainiako, Euskadiko txapelak ere lortu ditu, Larrinagaren Oroimezkoak bezalaxe.

-Nolatan hasi zinen xarean jokatzeko?

-12 urterekin hasi nintzen jokatzeko. Orduan bagenuen Avelino izeneko irakasle bat, eta harekin eskolan beti xarean jokatu behar izaten zen. Gero, azkar hasi nintzen nabarmentzen, eta Uzkudunekin, eta Mercaderrekin berahala hasi nintzen trinketeetara entrenatzera joaten. Garai hartan, gainera, ez zegoen orain bezainbeste aukera eta egun guztia pasatzen genuen xarean jokatzeko.

-Munduko Txapelketa ere goiz iritsi zitzaizun, ezta?

-Bai, 22 urtez azpikoa jokatu nuen 16 urterekin. Artean oso gaztea nintzen Anton eta biok jokatu genuen, eta brontzezko domina lortu genuen. Gero, handik lau urtera, Larrearekin, nafar batekin, urrea lortu nuen maila berean.

-Maila nagusiko urrea ere lortu zenuen.

-Bai, Lopeteggi eta Larrarte izan zen bikote titularra. Mundial hartan bi partida jokatu nituen, oso polita izan zen. Bi Munduko Txapelketa irabaztea gauza handia izan da niretzat.

-Iruran ere giro berezia izango zenuten, ezta?

-Bai, orduan hobeto edo gaizkiago denak aritzen ginen xarean jokatzeko. Iruran, lau edo bost bikote

on geunden, eta horrek entrenamendu oso onak egiteko aukera ematen zigun, eta aldi berean mailaz igotzeko ere bai. Oso zaila izango da berriz, horrela maila handiko horrenbeste lagun batera ateratzea.

-Uzteko erabakia hartu osotean, beste aukeraren bat ere iritsi zitzaizun, ezta?

-Bai, 98ko Mundialak eta gero, uztea erabaki nuen, baina orduan Euskal Herriko selekzioa atera zen, eta haiekin Argentinan izan ginen torneo batzuk jokatzeko. Oso polita izan zen Euskal Herria nazioartean ordezkatzeko.

-Nola ikusten duzu etorkizuna?

-Une honetan Iruran ume asko dabilta, eta denbora eman behar zaie. Azkenean errealitate bat dago, eta askotan xarea azkeneko aukera izaten dute. Une honetan Ipar Euskal Herriira joaten ari dira gaztetxoak eta maila oso ona ematen ari dira. Hori da garrantzitsua, ispilu hori izatea da, eta gauza onak egin daitezkeela ikustea. Garrantzitsua da bai beraientzat eta baita ingurukoentzako ere. Denbora eman behar zaie, baina itxaropentsu izateko aukera badagoela uste dut.



Joxi Lopeteggi: «Oraindik jokatzeko jarraitzeko ilusioarekin nago»

Joxi Lopeteggi da xareak eman duen pilotaririk handienetakoa. Dena irabazi du. Munduko Txapelketa, bai maila nagusian, eta baita 22 urtez azpikoetan, eta baita Munduko Kopa ere. Aurten jokatu den Munduko Kopan ere bigarren izan da. Euskal Herriko, Euskadiko, Frantziako, Espainiako eta Gipuzkoako hainbat txapel ere irabazi ditu.

-Noiz hasi zinen xarean jokatzeko?

-16 urterekin hasi nintzen, eta 43 urte dauzkat. Begira zenbat urte daramatzaten. Hasieran palan jokatzeko nuen, baina Iruran xareak beti izan du garrantzia eta zerbait banekien jokatzeko. Hasi eta urtebetera joan nintzen 22 urtez azpiko Munduko Txapelketa jokatzera.

-Dena irabazita edukita, nola mantentzen da jokatzeko gose hori?

-Egia esan urte asko eman ditut nazioarteko txapelketak jokatu gabe. Aurten ikusi dut ordea, xarea lehiaketa handietatik kentzeko arriskua zegoela. Espainiako Federazioak ez zeukan aparteko asmorik. Jende gutxi dabil jokatzeko, eta emaitzak ere kaskarrak.

Horrenbeste eman didan kirolari nik ere eman behar niola, eta Munduko Kopara joatea erabaki dut

Orduan erabaki nuen niri horrenbeste eman didan kirolari nik ere eman behar niola, eta Munduko Kopara joatea erabaki dut, Moncadarekin eta Apeztegiarekin.

Lesio bat tarteko ezin izan dut behar bezala prestatu baina finala jokatu dugu, eta bi tantogatik galdu Frantziaren aurka. Oraindik hor ibili naiteke, eta egia esan jokatzeko jarraitzeko ilusioarekin nago.

-Zenbat urte Funosasekin bikotea osatzen?

-24 urte. Kasualitatez hasi zen. Munduko Kopatik ezagutzen nuen, eta Herri Urrats bezpera batean, Sarako Urrats Gauean egin genuen topo. Hizketan hasi, eta elkarrekin jokatzeko erabaki genuen, biok genbiltzan bikote bila, eta ordutik hor jarraitzen dugu. Egungo Euskal Herriko txapeldunak gara. Makina bat partida jokatu ditugu elkarrekin, eta txapelak irabazi ere bai,



baina oraindik hor jarraitzen dugu ilusioarekin eta gogoarekin.

-Zure garaian Iruran maila handiko pilotariak izan zarete.

-Horrela da, nire garaian maila oso ona egon da, pilotari mordo bat egon gara goian, nazioarteko txapelketak irabazi ditugu, baina batzuk uzten joan dira, normala den moduan, eta honek behera egin du.

-Nola ikusten duzu etorkizuna?

-Eskolan orain lan asko ari dira egiten, eta behean maila oso oneko pilotariak ikusten dira, baina oso gazteak dira oraindik. Adin horretan gauza asko eman daitezke, eta oraindik denbora eman behar zaie, nahiz eta itxaropentsu izateko arrazoiak badauzkagun.

Juantxo Larrarte: «Hamabi urtean egon nintzen xarean jokatu gabe»

Juantxo Larrarte ere Irurak eman duen pilotaririk handienetakoa da. Lopetegirekin irabazi zuen Munduko Txapelketa, Iturbe eta Molina ere talde hartan ziren. Baina xarea ez zen izan bere jokamolde bakarra, txikitan aritu ostean, erremontera pasatu zen, eta han profesionaletara pasatzeko zorian izan zen, Koteto Ezkurarrekin batera aritu zen. Erremontea utzi eta gero itzuli zen berriro. Munduko Kopa ere irabazitakoa da, baita Gipuzkoakoa, bi aldiz, Euskadikoa behin, eta Larrinagaren Oroimenezkoa hiru aldiz.

-Noiz hasi zinen xarean jokatzeko?

-6-7 urterekin, eta 16 urtera arte aritu nintzen. Garai hartan xareak indarra zeukan Iruran, eta apurka apurka hor sartzen joan ginen. 13-14 urterekin dezentetan joaten ginen Donostiara eta Irunera txapelketak jokatzera, Mercader eta Uzkudun ziren garai hartako erreferentzia. 16 urterekin utzi egin nuen ordea.

-Zergatik?

-Erremontean probatu nahi izan nuen. Hura ere modan zegoen, eta han aritu nintzen 22 urtera arte. Ia profesionaletara pasatzeko zorian egon nintzen, baina azkenean ez zen posible izan. 22 urterekin utzi nuen erremontea, eta hiru edo lau urte pilota ukitu gabe pasatu nituen.

-Nolatan itzuli zinen?

-Herrian giro hori zegoen, maila handiko pilotariak zeuden, eta txikitan ni ere ez nenbilen gaizki. Berriro ere animatu eta hasi egin nintzen, 12 urte xarean jokatu gabe pasa ostean.

-Gero etorri ziren zure unerik onenak, ezta?

-Bai, 98an Munduko txapeldun



geratu nintzen. Une oso polita izan zen hura. Ez nuen pentsatuko xare utzita egon ostean gero Munduko txapeldun bihurtuko nintzenik.

-Noiz utzi zenuen?

-2002rarte oso maila onean ibili nintzen, garai hartan Iruran oso jende ona zegoen xarez jokatzeko, goi mailako jendea. Gero, 2003an lesio bat izan nuen, eta hor utzi nuen.

Iñaki Mercader: «Niretzat xarea frontoian da ikusgarriena»

Mercader eta Uzkudun izan ziren urte askoan xareko erreferentzia, makina bat partida jokatuak dira elkarrekin, eta baita Munduko Txapelketak ere. Munduko Txapelketan bi brontzeko domina lortu ditu. Euskadiko, Gipuzkoako eta Espainiako txapelak ere lortutakoa da, eta baita Baionako Torneo ere. Eskuz, palaz, hor ere Zeberiorekin Gipuzkoako txapela lortutakoa da, eta erremontean ere aritutakoa da. Oraindik ezkuz jokatzeko jarraitzen omen du.



-Zenbat urterekin hasi zinen xarean jokatzeko?

-15 urterekin hasi nintzen. Orduan hasi zen berriro xarea indartzen Iruran. Eskuz aritzen nintzen, eta Arsuagak egin zidan aurreneko xarea. 17 urterekin irabazi nuen Gipuzkoako aurreneko txapela, Sorondo lagun nuela.

-Arkupeak izango ziren zuen eskola?

-Bai, bai, han hasi ginen, eta han jokatzeko genuen. Xarmentak ziren arkupeak, ni hango umea naiz, azkenetakoa izango nintzen, gure atzeko gehienek han gutxi arituko zirelako, trinketea eraiki zutelako.

-Trinketean jokatzeko aukera gutxi izango zen orduan?

-Bai, baina begira nik Lekarozen ikasi nuen, eta han ondoan Elizondon trinketea bazegoenez, han jokatzeko aukera zegoen. Trinketeen arteko txapelketa ere egiten zen garai hartan, eta nik Antxitonearen izenean ere jokatu nituen.

-Zuk arkupean, frontoian eta trinketean jokatu duzu. Non gustuen?

-Denetan oso gustura, denek dute euren xarma, baina niretzat frontoia da ikusgarriena, eta uste dut han jokatzeko ere ona litzatekela aurrera egiteko.

-Bost kirolak ere jokatu dituzu.

-Bai, eta ikaragarri gozatzen nuen. Xarean ongi aritzen nintzen, baita

eskuz eta palaz ere. Mezkitzen urte batzuetan jokatu nituen, eta beste torneoren bat edo beste ere bai. Palaz irabazi nuen baita Gipuzkoako Txapelketa Zeberiorekin, eta erremontea ere probatu nuen.

-Mercader-Uzkudun izan zen modako bikotea zuen garaian?

-Bai, nik hala esango nuke. Lasarte eta Garbizu zen Ipar Euskal Herriko bikotea eta gu Hegoaldekoa. Lehia handiak izaten genituen, eta ederra izan zen hura. Garai hartan eta geure ondorenean Iruran sekulako maila izan zen xarean. Orain uste dut atzetik gaztetxoak badatozela, eta ia aurrera joaten diren. Horretarako lehiaketak jokatzeko garrantzitsua da, bestela gogoa joan egiten da.

Molina: «Xareareari esker bazter asko ezagutu ditut»

Manuel Molina da xareko beste ikurretako bat. Hiru Mundial eta Munduko Kopa jokatu ditu, hiru zilar eta urre bat lortuz, baina garaipenik kuttunenetakoa Iturberekin batera Ameztoren eta Olazagaztiren aurka Larrinagaren Oroimenekoa irabazi zutenekoa omen da.

-Noiz hasi zinen xarean jokatzeko?

-Zazpi bat urterekin gutxi gora behera. Avelino izeneko irakasle bat bageneukan, eta harekin jolas denboran denak xaren jokatzeko aritzen ginen. Aurreneko oroitzapena hori daukat. Hortik aurrera beti jarraitu dut xaren.

-Irurako garairik onenak zirela esan daiteke?

-Seguraski bai, gure garaian Iturbe, Larrarte, Lopetegi, Uzkudun bera ere ezagutu nuen, oso jende ona egon ginen, eta horrek balio izan zigun entrenamendu onak egin eta gu ere hobetzen joateko. Ez da erreza izango berriro horrelako jende pila bat batera ateratzea.

-Azkar hasi zinen nabarmen-tzen, ezta?

-Bai, oso txikitatik hasi nintzen garaipenak lortzen, eta lehenengo Mundiala 18 urterekin jokatu nuen, Kubako 22 urtez azpikoa. Maila nagusiko finala irabazi genuenean ere han nintzen, nahiz eta partida hura nik ez nuen jokatu.

-Askok eman dizu xareak?

-Bai dudarik gabe, gozatu egin dut jokatzeko, partida on asko jokatu ditut, nahiz eta kirol honek dirurik ez duen ematen. Honi esker bazter asko ezagutzeko aukera izan dut eta lagunak egiteko ere bai. Eta

horrek diruak baino gehiago balio du.

-Munduko Txapelketa irabaztea izan daiteke zure unerik politena?

-Hura ederra izan zen. Nik, hala ere, kuttunenak irabazten den Larrinagaren Oroimenekoa Torneoa daukat. Iturberekin, Ameztori eta Olazagaztiri irabazi genien, garai hartako bikotea zen hura. Irurako Torneoa ikaragarria izaten zen, Munduko Txapelketaren parekoa, sekulako pilotariak izaten ziren.

-Eta utzi noiz egin zenuen?

-2004ko Mundialen ostean erabaki nuen uztea. Haren ostean torneo bat jokatu nuela uste dut, eta akabo. Nire garaia pasatu zela iku-



si nuen, eta uzteko garaia zela erabaki nuen. Gaztea nintzenean helduak jokatzeko ikusten nituen lekuz kanpo zeudela pentsatzen nuen eta nik ez nuen nahi horrela bukatzerik.

Maila handiko pilotari asko eman ditu Irurak

Iruran xarean aritu diren guztien izenak aipatzea ezinezkoa da, beraiekin bakarrik liburu bat osatu daitekeelako. Batzuk aurretik aipatu ditugu, baina horiek gain beste asko ere izan dira arrastoa utzi dutenak, azkeneko 100 urte hauetan.

Pilotariei bakarrik begiratuta, ezin utzi bazterrean Gregorio Ameztoti, Joxe Gabarain, Martin Agirrezabalaga edo eta Juanito Olano. Haien atzetik ere beste mordo bat iritsi dira, eta maila oso onekoak. Larrarte II.a, Larrarte zaharrena, Juanjo Sainz, Aitor Artola, Lander Artola, Anton, Morcuende, Lizaso, Vinuesa, Josu Olano, Mendizabal, Sarasola, Gutierrez, Inurrita, Urkola, Lajas, Martxel Olano, Joxe Sorondo, Jexux Sorondo, eta berrienak Sainz eta Apeztegia. Baina ezin bazterrean utzi Bittoriano Sorondo ere, delegatu lanetan hainbat eta hainbat urteetan lan asko egin zuena, eta nola utzi ahaztuta Joxe Garmendia apaiza, berak sartu baitzuen xarea Iruran. Huez gain, beste hainbat ere izan dira xarean jokatzeko aritu direnak, eta nola ez baita xareak egiten aritu direnak ere, denek izan dute euren garrantzia, eta denen artean handi egin dute xarea Iruran. Bejondeiela denei!



Xareko eskolak betidanik izan du *harrera bikaina*



Xareko pilotariak izateko, gainerako kirolekin bezalaxe, harrobia izan behar da eta hori ongi landu du eskolak. «1982 inguruan sortu zen eskola Iruran. Ordura arte ere zerbait egiten zen, baina ez zegoen araututako ezer», esaten du Mikel Uzkudunek, orduko eta egungo eskolako arduradunak. «Bazen irakasle bat hemen, non eskolako jolas denboretan torneoak antolatzen zituen, eta ume guztiak aritzen ziren xarez jokatzeko. Gero, bera joan zenean, falta zen horrelako bat, eta orduan jarri genuen eskola martxan», gehitzen du.

Garai hartan, trinketerik ez zegoenez, arkupetan aritzen ziren jokatzeko, eta entrenatzen. Herriko mutikorik gehienak aritzen omen ziren garai hartan eskolan. «Dementzat zen eskola, irekia zen, baina mutilak bakarrik etortzen ziren,

hori zen garai hartako giroa», dio Mikelek. Ipar Euskal Herrikoekin egindako harremanak ere euren fruitua eman zuten. «Garbi zegoen aurrera egiteko hori landu beharra zegoela, eta hori egin genuen. Ipar Euskal Herritik talde osoa etortzen

zen, adin ezberdinetakoak, eta horrela jokatzeko genuen, herriarteko txapelketa bat balitz bezala», dio.

Eskolak izen handiak eman ditu Iruran. Larrarte anaiak, Lopetegi, Iturbe, Molina eta abar luze bat, baina 2000. hamarkadatik aurrera



beherakada handi bat izan omen zuen. «Arrazoia zehaztea ez da erreza izaten, baina apurka-apurka behera egin zuen. Goikoek jarraitzen zuten, baina behetik ez zeterren inor, edo oso gutxi», ekartzen du gogora.

Gauzak horrela, horri buelta bat eman nahi izan diote. Berritua ere eskola indartu, herrian kirol nagusia izan dena berritua ere sustatu eta horretan ari dira. «Une honetan 70 ume dauzkagu, 50 mutil eta 20 neska. Horrelako herri baterako kopuru oso handia eta garrantzitsua dela esango nuke. Beraiek izango dira hemengo etorkizuna», esaten du Mikelek.

Aurrez aipaturiko zuloa orain nabaritzen da. «Une honetan senior gutxi batzuk dauzkagu eta gero infantilak arte ez daukagu, tarte horretan zegoena uzten joan baita. Gauzak ongi badoaz, hemendik urte batzuk barru, berritua ere maila guztietan izango ditugu pilotariak», esaten du Mikelek.

Izan ere Uzkudunek esaten duen

*Gauzak ongi badoaz,
urte batzuk barru,
berritua ere maila
guztietan izango
ditugu pilotariak*

moduan, ez da erakustea bakarrik, umeak ere ibili behar dira. «Garrantzitsua da umeak ibiltzeko norbait egotea. Topaketak, lehiaketak egiten dira, baina laguntzeko behar dute norbait, gainean egongo zaiena, eraman eta ekartzeaz aparte, babesa emango diena», dio.

Izan ere eskolarekin eta trinketaren sorrerarekin, ikaragarritzko igoera izan zuen xareak. «Inguruko herrietara autobusak jarri genituen inguruko jendea erakartzeko. Eta etortzen ziren, baina xareaz gain, eskuz eta paletaz ere bai. Orduan orain bezalaxe trinkete gutxi zeuden, guk esaterako Irurakoa egin aurretik Donostiara joan behar izaten genuen entrenatzera, eta

orduak libre igande arratsaldetan genituen. Baita Lekunberrira ere joaten ginen», ekartzen du gogora.

Iruran torneo handi bat jokatzeko da, Jose Ramon Larrinaga Saria. 87an hasi omen zen, eta 2000. urtera arte urtero jokatzeko omen zen. Urte asko eta gero aurretik berreskuratu duten lehiaketa izan da. Urte batean Irurakoekin bakarrik jokatu zela gogoratzen du egungo eskolako arduradunak. «Mundialen garaia zen. 1994a, eta Frantziako Federazioak debekatu egin zien Ipar Euskal Herriko pilotariei hemen jokatzeko. Herriko bost bikote aritu ziren, baina garai hartan sekulako maila zegoen Iruran», esaten du Uzkudunek. Aurretik Lopetegi eta Apeztegia izan dira Irurako ordezkariak.

Orain jo eta su ari dira lanean Ametsa pilota elkarteak, lehengo berreskuratu nahiarekin, xareko goi mailako pilotariak ateratzeko asmotan, eta ez zaie itxaropenik falta. Orain ereindakoaren fruituak jasotzen, seguru aski laster hasiko dira.

Trinketearen ekarpena oso garrantzitsua izan da



Xareak 100 urte bete ditu Iruran, eta horietako gehienak arkupetan edo zimitorioan jokatutakoak izan dira. Baina 1986. urtean Irurako trinketea eraiki eta jokatzen hasi zirenetik, aukera asko eman dizkio Irurako herriari.

Ofizialki inauguratu aurretik, 1986ko udazkenean jokatu zen nazioarteko lehen torneo. Munduko

Txapelketa jokatu berria zen Gasteizen, eta hori baliatu zuten Iruran, ofizialki inauguratu aurretik, artean erabat amaitzeko zegoen, lehen partida handiak jokatzeke.

Urte hartan, gainera, Argentinak aurreneko aldiz galdu zuen Munduko Txapelketako final bat, Frantziaren aurka, baina Irurako trinketean horri aurre egin, eta mendean hartu omen zuen Euskal Herriko pilotariek osatutako Fran-

tziako selekzioa.

Ofizialki 1987.enean inauguratu zen Irurako Ametsa trinketea, orduko agintaririk gehienak han zirela. Behar bezalako inaugurazioa egin behar, eta partida ere jokatu behar zen, eta han lehiatu ziren Irurako bi bikote, lau pilotariak ere goi mailakoak. Iturbe eta Anton aritu omen ziren alde batetik, eta bestetik, berriz, Larrarte eta Uzkudun.

Arkupetan, berriz, azkeneko

partida, herriko Txapelketakoa izan omen zen, 1985.ean, trinketea amaitu aurreko urtean. Ordutik beti trinketean jokatu dute, nahiz eta aurtengo ospakizun berezi honetarako berreskuratu eta arkupetan ere partida batzuk jokatu diren.

«Trinketea beharrezkoa genuen. Ordurako Iruran maila handiko pilotariak geunden, txapelketarik garrantzitsuenak jokatzen genituen, eta arkupetan ez zegoen aritzerik». Ekartzen du gogora Mikel Uzkudunek.

«Nazioarteko txapelketak jokatu ahal izateko, edo edozein txapelketa ofizial jokatzeke trinkete batean jokatu behar genuen, eta han entrenatzea ere beharrezkoa zen. Ordurako Donostiara edo Lekunberrira joaten ginen entrenatzera», esaten du Mikel Uzkudunek.

Uzkudunen esanetan, trinketea Iruran beharrezkoa zen zerbait zen. «Lehen esan bezala, maila handiko pilotariak geunden Iruran, behar handi bat zen. Behetik zetozenentzako ere bai. Ikasten hasteko arkupeak ondo zeuden, baina

Arkupetako azken txapelketa 1985ean izan zen, ordutik beti Trinketean jokatu dira

gerorako trinket bat beharrezkoa zen, behar bezala lehiatzeko. Sekulako alde nabaritu genuen herrian trinketea egin genuenean. Entrenatzera eta jokatzeke ez geneukan kanpora joan beharrik, herrikoa zen, eta hori ikaragarria izan zen», esaten du.


Hala ere, herriko zaharrenek, arkupea pil-pilean ezagutu dutenek, ez dute berehala ahaztuko hango giroa, hango mugimendua. «Arkupetan ikaragarria zen. Jendea gainezka egoten zen. Eskuin aldeko ikusleak kontuz ibili behar izaten zuten pilota handik kanpora joaten zen, eta pilotariak kanpotik bueltatu. Errebotean jarritakoak ere bai, pilota hara joaten zelako. Bere xarma bazuen arkupeak»,

Trinketea beharrezkoa zen behar bezela lehiatzeko. Sekulako alde nabaritu genuen

esaten du Arsuaga xaregileak.

«Gogoan daukat Ipar Euskal Herriatik etortzen ziren aurrenekoak nola geratzen ziren harrituta, han jokatu behar zuten galdetuz. Badaude gauza batzuk, jokaldi batzuk, trinketean egin ezin direnak arkupetan egiterik daudenak, eta hor abantaila izaten zuten gure pilotariak. Hala ere, abantaila horrek ez zuen asko irauten, haiek ere berehala ikasten baitzuten, eta segituan berdintzen ziren», ekartzen du gogora.

Hala ere, trinketea berrikuntza handia izan zen herrian, baita bailarakoentzako ere, trinket barruan egiten diren beste jokamolde batzuk ere jokatzeke etxetik gertu aukera izan zutelako.



Xarearen historiarako 2019a gordeta geratuko da

2019ko irailaren 28a historian gordeko den data izango da, egun horretan lehen aldiz, xarez nesken arteko partida bat jokatu baitzen Irurako trinketean. Irurako Ametsa Elkarteko hiru bikote, sei neska aritu ziren torneo bat jokatzen.

«Dena normaltasunez joan den zerbait izan da», esaten du Mikel Uzkudun eskolako arduradunak. «Orain arte askotan mutilekin batera aritzen ziren, baina neskak izanda, euren artean jokatzeko garaia ere bazela ikusten genuen. Horrela gurasoekin hitz egin genuen, beraien ere bai, eta aurrera. Larri-nagaren Oroimenezko Torneoako

finalaren aurretik euren artean torneo bat jartzea egokia ikusi genuen, eta horrela egin genuen», esan zuen.

Asmoa ez da hor geratzen, denboraldi honetan euren arteko torneo edo lehiaketa bat antolatzeke asmoa baitauka. Oraingoan Ametsa Elkartea da xarean aritzen diren neskak dituen elkarte bakarra,

*«Neskak izanda,
euren artean
jokatzeko garaia
ere bazela ikusten
genuen», diote*

*Oraingoan Ametsa
Elkartea da xarean
aritzen diren neskak
dituen elkarte
bakarra*

baina badirudi apurka-apurka beste batzuetan ere hasi edo has-teko asmoa badutela, eta hori oso garrantzitsua izango litzateke emakumezkoen xarean.

San Miguel bezperan Iruran jokatutako torneoaren betirako geratuko da historian, horrelako lehiaketa bat emakumeek bakarrik jokatzen zuten lehen aldia zelako. Hiru bikote aritu ziren, hamar tantotako partidak jokatu ziren, denak denen aurka. Naroa Goenaga eta Matxalen Mendizabal izan ziren irabazleak. Aurreneko norgehiagoka estu eta larri iraba-

zi zioten Nora Galartzari eta Maider Isasiri. 5-9 galtzen aritu ziren, eta gero 10-9 irabazi zuten.

Bigarren partida, berriaz, 8-10 irabazi zien Irati Fernandezi eta Nahia Gorritiri, neurrak eder baten ostean, eta horrekin torneo hau irabazi egin zuten. Bigarren postua izan zen Irati Fernandezek eta Nahia Gorritik lortu zutena, hauek Nora Galartzari eta Maider Isasiri 10-1 irabazi ostean.



Handikiro ospatu da mendeurreneko festa

Mendeurreneko festa handikiro ospatu zuten Iru-
ran. Abendua-
ren 9ean abiatu
zen, aste guztirako xareko argazki
erakusketa jarri baitzuten, nahiz
eta abenduaren 2tik 5era Ikastolak
antolatutako ekitaldiak izan ziren.
12an, berriz, mahai ingurua izan
zen, eta bertan hartu zuten parte
Arsuagak, Lopetegik eta Iturbek,
Uzkudunek gidatuta. Mahi ingu-
ru jendetsua eta ederra izan zen.
Ordu eta erdi iraun zuena.

Egun gogorra abenduaren 14a
izan zen. Goizean umeen topake-
tak ospatu ziren, bai trinketean,
eta baita arkupetan ere. Pilota egi-
teko, Oterorekin, eta Arsuagata-
rrekin xareak egiteko aukera ere
izan zen. Arratsaldean hiru neur-
keta izan ziren Ametsa trinketean.



Hasteko, alebin
mailako Euskal
Herriko Txapel-
ketako finalerdia
jokatu zen eta bi
bikoteak Ame-
tsa elkartekoak
ziren. Herasek
eta Lopetegik

40-32 irabazi zien Maiza-Aristiri.
Ondoren maila nagusiko Euskal
Herriko Txapelketako bi finaler-
diak jokatu ziren. Aurrenekoan,
Driolet-Sistiagek 40-34 irabazi zien
Harispe-Karikabururi, eta biga-
rrerangoan Lopetegik eta Funosa-
sek 40-27 menderatu zituzten De
Paredes-Etxebeste.

Ondoren iritsi zen egun horreta-
rako Udaberri dantza taldeak sortu-
tako dantza saioa ikusteko parada,

*Erakusketa, mahai-
ingurua eta Euskal
Herriko Txapelketako
partidekin ospatu da
mendeurrena*

eta trinketeko
saioari amaiera
emateko, mun-
duko txapelketa
ezberdinetan
aritutako Iru-
rako pilotariek
oroigarria jaso
zuten. Egunari
bukaera emate-
ko, herri afaria
izan zen.



Irurako xarelarien mendeurrenaren ohorezko koadroa, 1919-2019

URTEA	HIRIA	TXAPELKETA	SAILKAPENA	PILOTARIAK
1952	Donostia	Munduko Euskal Pilota Txapelketa	Argentina, Uruguay, Espainia	Juanito Olano, Martxel Olano, Joxe Gabarain, Martin Agirrezabalaga
1971	Buenos Aires	Basilio Balda / Vicente del Rio torneoak	Argentina, Uruguay, Frantzia, Espainia	Eugenio Arrieta, Julian Larrinaga, Josetxo Olano
1973	Buenos Aires	Euskal Pilotako Mundialitoa	Argentina, Uruguay, Frantzia, Espainia	Josetxo Olano, Julian, Larrinaga, Mikel Uzkudun
1974	Montevideo	Munduko VII. Euskal Pilota Txapelketa	Argentina, Uruguay, Frantzia, Espainia	Josetxo Olano, Julian, Larrinaga, Mikel Uzkudun
1978	Baiona - Miarritze	Munduko VIII. Euskal Pilota Txapelketa	Argentina, Frantzia, Uruguay, Espainia	Josetxo Olano, Julian, Larrinaga, Eugenio Arrieta
1982	Mexiko	Munduko IX. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Argentina, Espainia	Mikel Uzkudun, Josetxo Olano, Iñaki Mercader, Ignacio Baztarrika
1984	Montevideo	22 urtez azpiko Munduko I. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Uruguay, Espainia	Inax Iturbe, Ramon Anton
1986	Gasteiz	Munduko X. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Argentina, Espainia, Uruguay	Mikel Uzkudun, Iñaki Mercader, Ignacio Baztarrika, Jose Luis Baztarrika
1988	Paris	22 urtez azpiko Munduko II. Euskal Pilota Txapelketa	Espainia, Frantzia, Argentina	Iñax Iturbe, Jose Antonio Morcuende, Jose Jabier Larrea
1990	La Habana	Munduko XI. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Espainia, Argentina, Uruguay	Iñax Iturbe, Mikel Uzkudun, Jose Javier Larrea, Jose Luis Baztarrika
1993	Buenos Aires	22 urtez azpiko Munduko III. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Espainia, Argentina	Joxi Lopetegi, Manolo Molina, Jose Luis Larrarte, Juanjo Sainz

URTEA	HIRIA	TXAPELKETA	SAILKAPENA	PILOTARIAK
1994	Donibane Lohitzune	Munduko XII. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Espainia, Argentina	Iñax Iturbe, Manolo Molina, Jose Luis Larrarte, Joxi Lopetegi
1997	Arnedo	22 urtez azpiko Munduko IV. Euskal Pilota Txapelketa	Espainia, Frantzia, Argentina	Joxi Lopetegi, Aitor Artola, Lander Artola, Josu Olano
1997	Baiona	Munduko XII. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Espainia, Argentina	Joxi Lopetegi, Jose Javier Larrea
1998	Mexiko	Munduko XIII. Euskal Pilota Txapelketa	Espainia, Frantzia, Argentina	Joxi Lopetegi, Juanxo Larrarte, Manolo Molina, Iñax Iturbe
2000	Baiona	Munduko Euskal Pilota II. Kopa	Espainia, Frantzia, Argentina	Joxi Lopetegi, Juanxo Larrarte
2001	Colonia (Uruguay)	22 urtez azpiko Munduko V. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Espainia, Kuba	Andoni Lizaso, David Vinueda, Jordi Lajas
2002	Iruñea	Munduko XIV. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Espainia, Argentina	Joxi Lopetegi, Juanxo Larrarte, Jose Luis Larrarte, Manolo Molina
2004	Baiona	Munduko Euskal Pilota III. Kopa	Frantzia, Espainia, Kuba	Joxi Lopetegi, David Vinuesa
2005	Viña del Mar (Txile)	22 urtez azpiko Munduko VI. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Kuba, Espainia	Erik Iñurrita, Urtzi Urkola
2006	Mexiko	Munduko XV. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Espainia, Argentina	Joxi Lopetegi, David Vinuesa
2008	La Habana	Munduko Euskal Pilota IV. Kopa	Frantzia, Espainia, Kuba	Andoni Lizaso, David Vinuesa
2009	Guailegay (Argentina)	22 urtez azpiko Munduko VI. Euskal Pilota Txapelketa	Frantzia, Argentina, Espainia	Ugaitz Mendizabal, Unai Sarasola, Axier Gutierrez
2019	Pabe Oloron	Munduko Euskal Pilota VII. Kopa	Frantzia, Espainia, AEB	Joxi Lopetegi, Julen Apeztegia, Sebastian Moncada

Arkupetik trinketera *1919 - 2019*

